

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure egitasmoa aurrera eramateko, garrantzitsua da gure **proiektua modu errealista batean ikustea**. Hori dela eta, hasiera batean, gure **baliabideak mugatuak** izango dira. Hala ere, etorkizunean, gure baliabideak eta zerbitzua hobetzea espero dugu, lokal handiago bat erabiliz, boluntario gehiago kontratatuz, etab.

Gure helburu nagusia **animalia abandonatuei laguntza eskaintzea** izango da, haien ongizatea bermatuz. Hori lortzeko, funtsezko baliabideak behar ditugu, gure hartzaile eta adopzio-interesatuei, halik eta zerbitzu onena eskaintzeko.

Erabiliko ditugun baliabideak azaltzen hasteko, **baliabide fisikoekin** hasiko gara. Hauek lokala, inprenta, eta gailu teknologikoak izango dira. Lokala, **Bilbon, Deuston** kokatzea erabaki dugu.

Lokala 92 m²-koa izango da, **lau gelatan banatuta**: harrera-gela, bilera-gela, boluntario eta antolaketa gela, eta animalien jasotzeko bulegoa.

Gailu teknologikoei dagokienez, hasiera batean, langile bakoitzak bere **ordenagailu pertsonala** erabiliko du, eta inprenta beharrezkoa denean, **Exapron** erositako ekipa bat erabiliko dugu. Gainera, elkarlan egiten dugun beste zentroetan ere gure zerbitzuak eskaintzeko aukera izango dugu, adibidez adopzio-kanpaina edo prestakuntza saioak egiteko.

Finantza baliabideei dagokienez, euskal jaurlaritzak eta Espainiako estatuak gazteei ematen dizkieten **diru-laguntzak** jasotzea espero dugu. Horrez gain, proiektu kide bakoitzak kapital zati bat jarriko luke, **1.000 € bakoitza**, guztira 5.000 €ko kapital sozial bat sortuz.

Baliabide intelektualei dagokienez, web-gunea geuk sortu dugu, eta etorkizunean **BabesBizi marka eta materialetan patenteak** ezartzea aurreikusten dugu.

Giza baliabideak direla eta, gure taldeak jakintza batzuk barneratuta ditu, hala nola **elkarlana, enpatia, integrazioa, errespetua, pazientzia, tolerantzia eta antolakuntza**. Oinarrizko formakuntza daukagu animalien zaintza eta lehen sorospenetan, eta partaide guztiek **motibazioa** izatea ezinbestekoa dela uste dugu, horrela lana azkarragoa eta atseginagoa izango da.

Taldeko kideak eta haien zereginak:

- **Olatz Irazabal** – Boluntario eta ekintza koordinazioa; hitzaldiak eta kanpainak kudeatuko ditu.
- **Olatz Ugarte** – Marketing eta komunikazioa; sare sozialak eta gure zerbitzuak zabaltzea.
- **Maialen Leanizbarrutia** – Harreman publikoak eta kudeaketa; beste elkarte eta enprekin aliantzak sortuz.
- **Aiala Delgado** – Giza harremanak eta animalien jasotzeko protokoloak; dokumentazioa eta idazketa lanak.
- **Lucía Urrejola** – Ekintza eta jarduera praktikoak prestatuko ditu; boluntarioen formakuntza eta koordinazioa.

Era berean, beste enprekin edo elkarteekin egingo ditugun **aliantzak** oso baliagarriak izango dira, alde batetik **esperientzia praktikoa** emango digute, eta bestetik, **baliabide fisikoak eta kontaktuak** eskainiko dizkigute, animalien babeseko ekintzak aurrera eramateko.

Horrela, BabesBizi-k **baliabide funtsezkoak** izango ditu, animalien ongizatea lehenesten dutenak eta komunitatearekin harreman estua izatea ahalbidetzen dutenak.